

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

HIRIAN LAN EGITEN DUTEN ETXEKO LANGILEEN EGOERA DELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko maiatzaren 11n Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

COVID19ak eragindako osasun-alarma egoerak lehendik zaurgarritasun egoeran bizi ziren pertsona eta kolektiboen egoera okertu du. Haien artean, kezka handia dugu hiriko etxeetan, garbiketa lanetan zein pertsonen zaintzan, lan egiten duten emakumeekin.

Kasu gehienetan emakume migranteak dira eta hirugarren sektoreko kolektiboek (Haurralde Fundazioa, SOS Arrazakeria, Caritas, hiriko Harrera Sarea, Malen Etxea, Agisas Gipuzkoa...) aste hauetan salatu dutenez, oso egoera zailak ematen ari dira: interna bezala dauden langileen eskubideen urraketa (kaleratzeak soldata eta prestaziorik gabe, lan ordu kopurua areagotu kontratua egokitu gabe, babeserako neurri eza, barneko langileen kasuan atsedenaldirik gabeko lanaldiak...); lanik eta diru sarrerarik gabe gelditu diren emakumeak inolako laguntza jasotzeko eskubiderik gabe, kontraturik ez zutelako; etxetik kaleratuak izateko arriskuan dauden emakumeak, haien logelak ordaintzeko arazoak dituztelako, eta abar.

Izan ere, etxeko langileen kolektiboak berak salatu du 11/2020 errege lege dekretuak ez duela kolektibo hau behar bezala babesten:

- Kanpoan uzten ditu kontraturik gabe lan egiten dutenak, hain zuzen ere zaurgarrienak: egoera administratibo irregularrean daudenak, kontraturik ez dutenak...
- Ez da premiazko tramitazio argi bat antolatu eta maiatzera arte ez da diru-laguntzarik jasoko. Kasu askotan langileek ezin izan dute apirileko alokairua ordaindu edo ez dute elikagairik erosteko dirurik.
- Martxoaren 14a baino lehen izandako kaleratzeak ez ditu aintzat hartzen, beste arlo batzuetan gertatu den moduan.
- Kotizazioaren oinarri arautzailearen %70 izango da eta jakina da sektore honetan normalean iruzurra izaten dela, eta %70 hori benetakoa baino akos txikiagoa izango da.

Sos Arrazakeriak egindako ikerketa baten arabera, Donostian 2.500 emakumek lan egiten dute sektore honetan, 700 batek kontraturik gabe. Hortaz, aurreikusitako daiteke horietako askok beharko dutela laguntzaren bat.

Jakin izan dugu dagoeneko emakume batzuk gerturatu direla gizarte zerbitzuetara eta ez dutela laguntzarik jaso alokairu kontraturik ez dutelako edo erroldatuta ez daudelako, nahiz eta hirian bizi diren. Hirugarren sektoreko eragileek eta Altzako laguntza sareko kidea den San Martzial elizako apaizak langile hauen babesgabetasun egoera salatu dute behin eta berriro.

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

EH Bildu udal taldearen aldetik, honako ekimen hauek proposatu dizkiogu Eneko Goia alkateari martxotik burutu diren bozeramaileen bileretan:

- Auzoetako zaintza sare komunitarioa baliatzea kasuen detekzioa egiteko.
- Emakumeen Etxearen eta Sos Arrazakeriaren bidez zailtasun egoeran egon daitezkeen etxeko langileen identifikazioa egitea eta aholkularitza zerbitzu bat martxan jartzea.
- Identifikatuen artean erroldarik gabekoak badaude, on line errolda erraztea.
- Diru-sarrerarik gelditu badira, urgentziazko laguntzak aktibatzea nahiz eta alokairu kontraturik ez izan, txosten sozial baten bidez.
- Kolektibo honen etxebizita beharrak atenditzea, batez ere, lanik gabe gelditu diren barne langileen kasuan, lana galtzeak etxebizitza galtzea ekarri duelako.

Maiatzaren 11n burututako batzordean, Gizarte-ekintako delegatuak adierazi du gizarte zerbitzuetara gerturatu diren pertsonen laguntza eskaini zaiela, baina ez du aipamenik egin etxeko langileen sarea antolatzeke proposamenaren inguruan eta badirudi Udal Gobernuak ez duela intentziorik langile hauentzako aholkularitza zerbitzurik martxan jartzeko.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, interlokuzio kanal bat ezartzea Sos Arrazakeriaren, Donostiako Emakumeen Etxearen eta udal gizarte zerbitzuen artean, hiriko etxeetan lan egiten duten pertsonen egoera zein den ezagutzeko eta zaurgarritasun kasuen aurrean arreta koordinatu bat eskaintzeko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal diru laguntzak jasotzeko baldintzak malgutu ditzala errolda epea betetzen ez dutenak edo etxe/logela alokairuko kontraturik ez dutenak inongo diru-sarrerarik gabe ez gelditzeko.

Donostian, 2020ko maiatzaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia